

Kultura

‘Errementari’ filma estreinatuko dute, gaur, Sitgeseko zinema jaialdian. Filma osatu duen lantaldean parte hartu duten Durangaldeko hainbat lagunekin solasaldia. > 15



Mañarian 146 etxe huts egon daitezke ikerketa baten arabera

Mañarian, herrigunearen eta landa eremuaren artean, 320 etxebizitza daude, eta horietatik 146 hutsik egon daitezke. Udalak herriko etxebizitza parkearen errealitatea jakiteko agindu duen diagnostiko batean jasotzen da datu hori. Hutsik egon daitezkeen etxeetako 69 landa eremuan daude, eta 77 herrigunean. Herri batzarra egin dute datuak herritarrei aurkezteko. > 8

“Oso barneratuta daukagu adinkeria. Mikroadinkeria piloa ematen dira egunero”



Isabel de Blas | Bizitzen Fundazioa > 10

Bizia emateko jaiak

Durango bete-betean murgildu da jaietan. Atzo, txupinazoan, bizia emateko deia egin zuten odol-emaleen elkartekoek, baita eraso sexisten aurkako mezua bidali ere. Udalak aplikazio bat sortu du, gerta litezkeen erasoak prebenitzeko helburuz. > 3



 **UNAI
GARAY**

ITURGINTZA · BEROGINTZA · GASA

659 673 790 · unaigaray@yahoo.es



Azkonizaga

Edari banaketa

GARAGARDOAK · ARDOAK · LIKOREAK
ESNEA · URA · FRESKAGARRIAK

Ortuzar, 1 Izurtza (Bizkaia) Tel: 94 681 06 52 / 615 78 55 58
azkonizaga@azkonizaga.com

Mallabia > 4

Etxebizitza erre zitzaion familiari laguntzeko ekimena abiatu dute

Durango > 2

Uribarrena komunista oroitu dute parke bati bere izena jarrita

Elorrio > 9

Alde Zaharreko termitek kezka sortu dute herritarren artean

Atxondo > 5

Gure Esku Dago eguna antolatu dute urriaren 27rako

Herririk herri

DURANGO Markel Onaindia
Joan zen barikuan inauguratu zuten Benita Uribarrena parkea, Arte eta Historia museoaren atzealdekoa. Kale, plaza eta eraikinetan emakumeen presentzia handitzeko udalaren ildoan kokatzen da izen hori ipintzeko erabakia. Uribarrenaren izaera antifaxistari balioa eman dio udalak; familia sozialistakoa zen, eta 1936ko altxamendu faxitaren ondorioz, Frantziara ihes egin zuen. Baina, alderdi komunistan parte hartuta, izaera antifaxistari eutsi zion.

Francok heriotza-zigorra ezarritako zenbait militantari ihes egiten lagundu zion

Marina Fuster alabak "frankismoaren biktima guztiei" eskaini zion omenaldia

Durangotik ihes egin behar izan zuen emakume komunistari eskainitako parkea

Kale eta plazetan emakumeen presentzia handitzeko ildoan kokatzen da



Uribarrenaren familiakoak eta Maria Gonzalez Gorosarri ikerlaria, parkean ezarritako plakaren ondoan. Durango 1936

Emakume ausarta izan zen Benita Uribarrena Bollain. Frantzian alderdi komunis-

taren baitan jardun zuen, Parisen egunkari iraultzaile bat banatzen, esaterako. Hala ere,

Euskal Herriko eta Espainiako erresistentzia errepublikarrari ere babesa eman zion. Donos-

tiara etorri, eta Francok heriotza-zigorra ezarritako zenbait militantari ihes egiten lagundu

zuen, adibidez. Erbestea amaituta, Durangora etortzeko aukera eduki zuen, baina egun batez bakarrik. Izan ere, bere senarra gaixorik ipini zen bidaiari, eta azkar bueltatu behar izan zuten.

"Biktima guztiei"

Uribarrenaren senideak Durangora etorri ziren barikuan, ekitaldian parte hartuz. Marina Fuster alabak "frankismoaren biktima guztiei" eskaini zion omenaldia. Hunkituta egin zuen berba. Amaren izaera komunistagatik, "kamarada" guztiak ere gogoan izan zituen Fusterrek. Gainera, eskertza lez, euren herriko domina bana eman zion Aitziber Irigoras alkateari, Durango 1936 elkarteari eta Maria Gonzalez Gorosarri, Uribarrenaren istorioa zabaltzen hasi zen kazetariari.

Parke bat gehiago

Beraz, Durangok parke bat gehiago dauka barikutik. Udalaren obren aurretik, EH Bilduk auzolana egin zuen, birritan, eta Aitziber Irigoras alkatearen iritzian lan horiek "txapuzak" izan ziren. EH Bilduk azaldu du auzolana "parkearen arazoak agerian uzteko zela", eta herri-tarrek gobernua "lotsarazi" dutela uste du.

Errefuxiatuen kanpaleku sinboliko bat eraikiko dute Andra Marian

Ongi Etorri Errefuxiatuak ustez, jaietan ezin da ahaztu iheslarien egoera

DURANGO Markel Onaindia
Durangoko Ongi Etorri Errefuxiatuak (OEE) taldeak ekimen berezia egingo du bihar, zapatua. Errefuxiatuen kanpaleku bat irudikatuko dute Andra Mari-riko elizpean, era sinbolikoan. 11:00etatik 14:30era izango da ekintza hori eta, horrez gainera, eguerdian elkarretaratzerak ere deitu dute antolatzaileek, 12:00etarako.

Jaiak datozela-eta, Ongi Etorri Errefuxiatuak taldearen ustez ezin da ihesean daudenen

Gainera, eguerdian elkarretaratzerak ere deitu dute antolatzaileek, 12:00etarako

egoera ahaztu. "Giza eskubi-deen defentsan jarraitu behar dugu jaietan ere, eta iheslari, errefuxiatu eta migratzaileek jasaten duten egoera salatzen", gaineratu dute.

Herritarrei dei egin diete biharko ekimenean parte hartuz, eta errefuxiatuen aldeko kamisetak, zapiak, banderolak eta motxilak eramatera gonbidatu dituzte.



Durangon makina bat mobilizazio egin dira errefuxiatuen alde.

anboto
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org

2017ko urriaren 13a
14. urtea - 693. alea

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
11.500 ale



Zuzendaria: Jone Guenetxea
Arrinda. **Erredakzio burua:** Markel Onaindia Txabarri. **Administrazio burua:** Itziar Belar Zubizarreta. **Administrazioa:** Miren Abasolo Txabarri. **Publizitatea:** Itxaso Martinez de Arenaza Yarza eta Nagore Txinturreta Isasi. **Erredakzioa:** Aitziber Basauri Gandiaga, Itsaso Esteban Urriaga, Joseba Derteano Bilbao, Markel Onaindia Txabarri, eta Maialen Zuazubiskar Gallastegi. **Maketazioa:** Eider Alberdi Bengoa. **Zuzentzailea:** Mikel Azkarraga Etxegibel.

LAGUNTZAILEAK

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

180 ekintza baino gehiago Durangoko jaiei bizia emateko

Ondo pasatzeko gogoak eta eraso sexisten aurkako prebentzioak markatuta hasi dituzte jaiak

DURANGO Markel Onaindia Eguraldi udatiarragaz batera etorri dira aurten San Fausto jaiak Durangora. Tenperaturak eta zeruak gaurkoak ez diruditen arren, urriaren 13a da gaur, San Fausto eguna. Ofizialki atzotik daude jaietan murgilduta durangarrak –Txosnagunear herenegun jaurti zuten txapli-goa–, eta 180 ekintzatik gora dituzte jaietan disfrutatzeko. Atzo eguerdian Mugarra odol-emaileen elkarteko eskutik hasi zen jaia, udaletxetik bota zuten txupinazoagaz. “Eman dezagun bizia. Jaietan ere bizia gura dugu; eraso sexistarik ez”, aldarrikatu zuten balkoitik. Ondo pasatzeko gogoak eta eraso sexisten prebentzioak markatuta datoz jaiak.

Patxikotxu eta Pantxike kalean gora eta behera dabilta, eta ez dira joango urriaren 22ra arte. Gaur ohiturazko artopilen banaketa egingo dute udal

ordezkariak udaletxean, eta Kriskitineko dantzariak Plati-llu-soinua dantza berezia eskainiko dute, besteak beste. 1999an berreskuratu zuten dantza, eta 2015etik neskek eta mutilek batera egiten dute.

Gaur ohiturazko artopil banaketa egingo dute udal ordezkariak udaletxean

Egunekoa indartuta Iker Ocejá zinegotzi eta jai batzordeko presidentek azaldu duenez, eguneko egitaraua indartzeko apustua egin dute aurten. Adibidez, umeentzako bits jaia eta ur-parkea antolatu dituzte. “Gure helburua adin guztietarako jardueren bitartez jaiak denon gustuko izatea da”, adierazi du Ocejak.



Udaletxeko plaza jendez bete zen atzo, txupinazo ofizialean. Irudian, odol-emaileen elkartekoak pregoia irakurtzen.



Txosnaguneko egitarauari kalejira batez eman zioten hasiera.

Eztabaidaren ostean, jaia Txosnetan eguaztenean ekin zioten egitarauari, dispersioaren aurkako taldearen pregoiagaz. 30 urte dira presoen saka-

banaketa martxan jarri zela, eta hori salatu zuten mezuan. Beraz, piztu da jaia, kokapenak auzokideen artean sortu duen eztabaida atzean utzita. Gaur,

esaterako, paella lehiaketan ehunka lagun batuko dira. Aipagarria, aurten ere brigada feministak egingo dituztela, eraso sexistak prebenitzeko.

Eraso sexistak prebenitzen saiatzeko, mugikorretarako aplikazioa sortu dute

‘Erastop’ izeneko App-a jaien ostean ere martxan egongo dela iragarri dute



Txupinazoaren momentuak eraso sexisten kontrako aldarria zabaldu zuten.

Erastop izenagaz, eraso sexistaren bat sufritzen dabiltzan emakumei laguntza emateko, mugikorretarako aplikazioa sortu du Durangoko Udalak. Maristak ikastetxeko ikasleekin landu dute aplikazioa. Jaien ostean ere martxan egongo dela iragarri dute.

Hiru botoi ditu aplikazioak. Emakume batek eraso jasaten badu, botoi bat sakatu eta udaltzaingoari dei zuzen bat egingo dio. Aplikazioaren geolokalizazioari esker, udaltzainek emakumea non dagoen jakingo dute. Erasoa herritar batek ikusten badu, beste botoi bat sakatu eta 112ra deituko du. “Erantzuna azkarra izatea

gura dugu, eraso saihesteko. Nazkatuta gaude erasoaren ostean salaketa egiteaz”, esan du Idoia Agorriak, aplikazioaren sorkuntzan ibili den informatikari eta udaleko aholkulariak. Beste botoiagaz, etxera doan neskak kontaktu bat aukeratu eta pertsona horrek uneoro jakingo du neska non dagoen.

Ituna, prest

Aurten ere eraso sexisten aurkako Ituna sinatu dute 240 elkarte eta komertzioekin baino gehiagok –ANBOTOK ere bai–. Jaietan erasorik gertatuz gero, musika etengo dute biharamunean, 20:00etan, elkarretaratzeko iraun bitartean.

hitz liburudenda

#gomendioak

artekalea 23, durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.com

HELOQUENTZAT
EUSKARA ETA
HIZKUNTZARI BURUZ
Beatriz Fernandez
2017

UME ETA GAZTEENTZAT
EZ DA KAXA BAT
Antoinette Portis
2017

MUSIKA
KALIMA
Glaukoma
2017

R.P.S. 214/06

A. Urreta podólogo

Adinara Urreta Jainaga

OINETAKO PATOLOGIAK
NEURRIRA EGINDAKO PLANTILLAK
OINETAKO BESTE HAINBAT GAITZ

IMQ MAPFRE

Herriko gudarien kalea, 10 beheka - DURANGO
Tel./Faxa: 946 215 404

Urrike Liburudenda

Kalebarria z/g - Durango
Tel.: 946 201 893
Faxa: 946 816 403



Mallabiko kultur etxearen ondo-ondoan dago suteak erre zuen etxebizitza.

Etxebizitza erre zitzaion familiari laguntzeko ekimena abiatu dute

Etxeko materiala emateko edo ekarpen ekonomikoa egiteko aukera dago

MALLABIA Joseba Derteano
Orain aste bi kultur etxearen ondo-ondoan dagoen etxe bat erre zen Mallabiko herrigunean. Familia bat bizi zen bertan. Orain herritar talde batek ekimen bat abiatu du familia horri laguntzeko. Etxeko materialaren bilketa hasi dute eta kontu korrante zenbaki bat ere ireki dute, lagundu gura dutenek ekarpen ekonomikoa egin dezaten.

Etxe batean behar izaten diren gauzak edo tresnak udal-etxera eraman daitezke, eta han utzi. Eguneroko bizimoduan erabilgarriak diren gauzak

Eguneroko bizimoduan erabilgarriak diren gauzak (baxera, kazolak...) udal-etxean utzi daitezke

eramatea proposatu dute: toallak, izarak, mantak, sukaldeko baxera (edalontziak, platerak, koilarak, labanak...), sukaldeko trapuak, mahai-oihalak, kafetarak, sukalderako kazolak, garbiketarako tresnak, lisatzeko plantxa eta antzerakoak.

Diruz lagundu gura dutentzat kontu korrante zenbaki bat ireki dute Laboral Kutxan. Udal-etxean galdetu daitezke zenbakia.

Zapatuero programarako izen-ematea hasi dute

Azoaren 3a da izen-ematerako azken eguna

MALLABIA J.D.
Zapatuero herriko umeei eta gaztetxoei zuzendutako aisialdi eskaintza da eta aurtengo aldian parte hartu ahal izateko izen-ematea abiatu du Mallabiko Udalak. Azaroaren 3ra arte

kultur etxean apuntatu daitezke. Ume bakoitzaren kuota 20 eurokoa izango da. Azaroaren azken astean ekingo diote programari.

Zapatuero programa 16 urtera arteko gazteei bideratuta

dago. Gazteak talde bitan banatu dituzte, adinaren arabera: 5 eta 11 urtekoek talde bat osatuko dute, eta 12 eta 16 urte artekoek, beste bat.

Heziketa eta dibertsioa
Zapatuero programaren helburua herriko gazteek eskaintza hezitzaileagaz gozatzea da. Askotariko ekintzak antolatzen dituzte: jolas kooperatiboak, tailerrak, txangoak, ur-jolasak, dantzak, ginkanak, herri kirolak, bizikleta ibilaldiak...

Etxeitako Arteaz informatzeko panela

300 ardiri gerizpea emateko diametroa dauka

GARAI Markel Onaindia
Arbola baliotsu bat dago Garain, Etxeita auzoko zelai aldapatsu batean. Zuhaitz bakan edo bereziaren izendapena jaso du bertako arteak, Etxeita-ko Arteaz lez ere ezaguna. Izan ere, 19 metroko diametroa eta 60 metroko zirkunferentzia ditu, azpian 300 ardiri gerizpea emateko beste.

Momoiito gainean dagoen Santa Katalinako basilizaren inguruetatik joan daitezke bertara, auzora bideratzen duten karteletan jarraituta. Baina, bisitariarentzat leku ezaguna ez denez, zeozelan markatzeko beharra ikusten zuen udalak. Horregatik, informazio panel

txiki bat ipini du artearen alboan. Aldundiari eskatu zioten artea bistaratzeko zerbait egitea, baina denbora aurrera joanda, azkenean udala izan da ezarri duena.

Leku ezaguna ez denez, zeozelan markatzeko beharra ikusten zuen Garaiko Udalak

Joan zen asteburuan, hainbat lagunek bisitatu ahal izan zuten artea, Gerediagak eta udalak antolatutako Ondare Jardunaldiaren baitan.



Artearen parean kokatu dute plaka.

Mikel Markez eta Eñaut Elorrieta zuzenean arituko dira gaur

OTXANDIO J.D.
Azaroaren 5ean herri galdeketa egingo dute Otxandion, Gure Esku Dago elkarteak sustatuta. Ildo horretatik, giroa berotzen joateko, erabakitze eskubidearen aldeko kontzertua antolatu dute, gaurko, Otxandioko

Gazte Asanbladak eta Arkotxe Kultur Elkarteak elkarlanean. Mikel Markez eta Eñaut Elorrieta zuzenean ikusteko aukera dago, 19:00etan.

Markez eta Elorrietaren *Baga biga, higa* euskarazko musikaren transmisioa helburu duen proiektua da. Multimedia formatuko hitzaldi-kontzertuen bidez ikus-entzuleei euskal musikaren historiaren gaineko begirada eskaini gura diote, 60ko hamarkadaren aurretik hasi eta gaur egunera arte.

anboto.org
MUGIKORREAN

Albistek eta agenda, bizkor eta eskura.
Telefono gida osatuena: zuzenean deitzeko aukera.
Parte hartu, galderak eginez, erantzunak lortuz.
Pertsonalizatu, zure herria aukeratu.

DESKARGATU DOAN!

Durangaldeko Baserritarren Elkarte

DIBA

Murueta, 6
Tel.: 94 681 87 92
48200 ABADIÑO BIZKAIA

Igogailua jarri edo fatxadak konpontzeko diru-laguntzak

IURRETA Aitziber Basauri Fatxadak eta estalkiak birgaitzeko, traba arkitektonikoak kentzeko eta bizitegi kolektiboko erabilerako eraikinetan igogailuak jartzeko diru-laguntzen deialdia —2017rako— zabaldu du udalak; 25.000 euro gorde dituzte.

Datorren urriaren 27ra bitartean dago zabalik epea diru-laguntza eskaria egiteko

2016ko urriaren 1etik 2017ko irailaren 30era obra-lizentziak lortu dituzten lanek jasoko dute diru-laguntza, beti ere udal ordenantzan ezarritako baldintzak bete badituzte. Urriaren 27ra arte dago epea zabalik eskaria egiteko. 2009an ordenantza onartu zutenetik jabeekideen 29 erkidegok lortu dute laguntza. 219.126 euro banatu dira guztira. Iaz bi onartu zituzten, 23.961 euro bideratuz.

ATXONDO M. Z.

Atxondoko Gure Esku Dagoko kideak buru-belarri dabilta lanean azaroaren 5ari begira. Hala ere, herri galdeketa eguna egin baino lehen, hainbat ekintza antolatu dituzte herrian.

Urriaren 27rako, esaterako, Gure Esku Dago eguna antolatu dute, eta aurretik, hilaren 19an, herri galdeketa eguneko galdera aurkeztuko diete atxondarrei.

“Erabakitze eskubidearen aldeko kanpaina galderaren aurkezpen egunean hasiko da, eta hortik aurrera zenbait ekintza egingo ditugu herritarren aurrean”, adierazi du Josu Barandalla Gure Esku Dago dinamiko kideak.

Gure Esku Dago egunerako, urriaren 27a, esaterako, hainbat ekintza antolatu dituzte. Goizean, Asuntze Mendi taldearen laguntzagaz, mendi martxa familiarra egingo dute. Gainera, Barandallak jakitera eman duenez, mendian otxandiarrekin batzea gura dute—otxandiarrek azaroaren 5ean egingo dute galdeketa—. “Oraindik ez daukagu dena lotuta, baina gure asmoa Otxandioko herritarrekin mendian batu eta elkartzasun irudi bat ematea da”, adierazi du Barandallak.

Mendi martxaren ostean, herrian triki-poteoa egingo

Gure Esku Dago eguna antolatu dute hilaren 27rako, Atxondon

Herri galdeketa egingo dute azaroaren 5ean, Atxondon eta Otxandion



Irailaren 19an galderaren aurkezpena egingo dute.

dutela eta egunari jarraipena herri bazkari batez emango diotela jakitera eman dute.

Arratsaldean bingoa eta fotomatoia egongo direla adierazi dute. Eta egunari amaiera emateko, txokolatada bat egingo dute, herriko plazan.

Galdeketa egunaren zain Bestalde, Atxondoko dinamiko kideak herri galdeketa egunerako gogotsu daudela adierazi dute. “Alde batetik, oso urduri gaude, lan piloa egin behar delako. Baina, beste alde batetik, gogotsu ere bagaude, herriak

galderari erantzun gura dioteko”, adierazi du Barandallak.

Horrez gain, dinamiko kideek herritarrek bozkatzera gonbidatu dituzte. “Bozkatzera da garrantzitsua, erabakitze eskubidea daukagula esatea”, bukatu du Barandallak.

Abesbatza herrikoia berriztarrei zabalik dago

Martitzenetan batzen dira Kultur Etxean



Berrizko jaietan kantuan ibili ziren.

BERRIZ M.Z.

Duela urtebete inguru hainbat herritarrek Berrizen abesbatza sortzeko nahia zabaldu zuten. Eta, orduz geroztik, herriko zenbait musikariren laguntzagaz, 30 bat lagun hamabostero batzen dira abesteko. “Oso pozik gaude ekimen honez, abesbatza herriko honek abesteko grina piztu baitio jendeari”, adierazi du Eneritz Gorritxategi musikariak.

Bestalde, abesbatza herrikoiko kideek abestea gustatzen zaien berriztarrei dei egin diete

haiek ere taldeko kide izan daitezzen. “Talde honen helburua ez da ondo abestea, euskaraz kantatuz elkarregaz ondo pasatzea baizik”, aitortu du Gorritxategi.

Hori horrela, abesteko gogoia duten herritarrei hileko lehen eta hirugarren martitzenetan, 20:00etan, Kultur Etxera joateko deia egin diete.

“Berrizen ideologia eta adin ezberdinetako jenderik gehien batzen duen ekimena da gurea. Eta hori izugarria da”, bukatu du Gorritxategi.

Zaintzaileentzat ikastaroa egingo dute Berrizen

BERRIZ M. Z.

Menpekotasuna duten pertsonen zaintzaileentzat topaketa antolatu dute Berrizen. Ikastaroa urriaren 18an izango da, 17:00etan, Berrizko Nagusien Egoitzan.

Urriaren 18an egingo dute; tailerlean parte hartu gura duenak aurrez eman beharko du izena

Tailer honen helburu nagusia topaketetara joaten diren pertsonen beraien kezka azaldu eta udalak eskaintzen dituen zerbitzu eta baliabideen berri izatea dela jakitera eman du udalak.

Bestalde, ikastaroa menpekotasuna duten pertsonen zaintzaileei zuzenduta dagoenez, egun horretan etxeko laguntza zerbitzua eskainiko dutela esan du udalak. Horretarako, urriaren 16a baino lehen eman beharko da izena.



GAZTEEI ETXEBIZITZAK ALOKATZEN LAGUNTZEKO DEIALDIA

18-35 URTE BITARTEKO GAZTEAK

IURRETAN BERTAN

**GENIENKO DIRU-LAGUNTZA:
250 EURO / HILABETEKO**

**ESKAERAK AURKEZTEKO EPEA:
2017KO URRIAREN 1ETIK 31RA.**

Informazio gehiago:
IURRETAKO UDALETXEAN
Bidebarrieta, 5
Tel.: 946 201 200
www.iurreta.eus

Iraunkortasun Plan berriak 132 ekintza jasotzen ditu, 2025era bitartean gauzatzeko

Zortzi urterako egitasmo transbertsala da udaleko hainbat sektoretako planetan txertatuko dena

ZORNOTZA Joseba Derteano Zornotzako Udalak datozen zortzi urteetarako iraunkortasun plana onartu du, herrian arlo hori sustatzen eta garatzen lagunduko duten ekintzak finantzatzeko. Ekintza plan berriak zortzi lerro estrategiko, esku hartzeko 33 programa eta 132 ekintza ditu.

“Gero eta herri iraunkorra gora joatea eta baliozko ingurua babestea” dira helburuetako batzuk, Andoni Agirrebeitia alkatearen berbetan. Egitasmo transbertsala da, udaleko hainbat sektoretako planetan txertatuko dena. Plana egin aurretik, herritarren iritzia jasotzeko batzar ireki bi egin dituzte, eta baita inkesta bat ere.

Natura, paisaia eta historiari lotutako ondarea babestea da lerro estrategiko bat. Paisaien kalitatea hobetzea dago ekintzen artean, “batez ere Belatxikieta inguruan”, Anartz Gandiaga hirigintza arloko zinegotziak zehaztu duenez.



2010etik hona iraun du lehenengo planak; aurten onartu dutena 2025ean iraungiko da.

Mugikortasunaren inguruko neurriak jasotzen ditu bigarren lerroak. Planean “pisu handia” duen arloa da, Agirrebeitiaren esanetan. Herria bidegorri sareagaz lotzea da jardunbideetako bat.

Energia berriztagarrien erabilaren sustapenean ere eragin gura dute. Esaterako, udal eraikinak energia berriztagarrietara bideratzeko plan bat lantzen ari direla azaldu dute. Klima aldaketaren gaineko sen-

tsibilizazio kanpainak ere lerro honetan sartzen dira.

Baliabide naturalen erabilera zentzuzkoa ere bilatzen du planak, birziklapena bultzatuz eta herriko ur kontsumoa gutxitzen saiatuz, besteak beste.

Herritarren eta udal egituren arteko hartu-emanak estutzeko bidean, herritarren arretarako gunea laster jarriko dutela martxan aurreratu du Gandiagak.

Herriko jarduera ekonomikoari ere eragiten dio planak. Besteak beste, turismoari lotutako zerbitzuetako azpiegitura dotazioak hobetzen saiatzeko erremintak eskainiko ditu plan berriak. Lehenengo sektorea sustatzea da beste helburuetako bat.

Herritarren arretarako gunea laster izango dela martxan aurreratu du Gandiaga zinegotziak

Gizarte ongizatearen arloko neurrien artean, etorkinen integrazioa erraztea eta etxebizitza iraunkorrak (babes ofizialekoak zein alokairuzkoak) sustatzea bilatuko dute, besteak beste.

Azken ildo estrategikoak euskara eta kultura sustatzeko ekintzak aurreikusten ditu. Esaterako, gazteei ekintza kulturalak antolatzekeo baliabideak eskaintzea aurreikusten dute, Ametx erakundearen bitartez.

Julio Medemen ‘El árbol de la sangre’ filma grabatzen ibili dira

Durangaldeko hainbat lagun ibili dira figurante lanetan Medemen filmerako



Larraitz Zabala eta Isa Etxebarria, filmazioko une batean.

ABADIÑO Markel Onaindia Julio Medem zuzendaria *El árbol de la sangre* pelikula filmatzen ibili da, asteon, Abadiñoako baserri batean. Durangon castinga egin zuten, eta Durangaldeko hainbat lagun dabilta figurante. Larraitz Zabala iurretarra da euretako bat. Gertu zebilen Luhartz taldeko Rafa Iriondo ere; filmeko eszena ezkontza baten ingurukoa da, eta Iriondok hainbatetan egin duen lana fikziora eramanez, akordeoia jota.

Larraitz Zabalak lehen aldiz parte hartu du filmaketa batean, beste askoren antzera.

Felix Arkarazo Josep Maria Pou, Ursula Corbero eta Angela Molina aktoreak agertzen dira filmean

“Castingera joan, eta gero oso ahaztuta neukan. Ja ez zigutela deituko komentatzen geunden,

eta, kasualitatez, handik ordu erdira deitu zidaten”. Zinea barrutik zelakoa den ikusi ahal izan dute. “Zenbat bider egin behar duten eszena bakoitza... Onena, oso hurbilekoak izan zirela aktoreak”, esan du Zabalak. Ondo pasatu zuen: “Egundoko barreak egin nituen, figuranteek gauza bat egin behar eta txarto egiten genuelako”.

Angela Molina, Josep Maria Pou, Ursula Corbero eta Felix Arkarazo durangarra dira filmeko aktoreetako batzuk.

Abadetxera lekualdatu dituzte udalaren hainbat zerbitzu

ABADIÑO I. E.

Badira hainbat egun Abadiñoako Udaleko bulego teknikoko langileak San Trokaz kaleko 2. zenbakian dagoen abadetxeko kokagune berrian dabilzala lanean. Abadetxea udalaren hainbat zerbitzu hartzeko prestatzea izan da Abadiñoako Udalak 2017rako onartutako aurrekontuak jasotzen duen inbertsio nagusia (253.045 euro). Eraikin horretan harrera-gunea, idazkaritza eta artxibategia atondu dituzte, besteak beste.

Abadiñoako Udalak 2017rako onartu zuen aurrekontuko inbertsiorik handiena izan da obra hori

Bestalde, udaletxean igogailua ipintzeko lanak esleitu ditu Abadiñoako Udalak, eta alkatearen arabera, azaroan ekingo diete lan horiei. Udaltxeko irisgarritasuna hobetu gura dute igogailua ipinita.

Argazkigintza ikastaro bat eta irakurketa kluba antolatu dituzte

ABADIÑO I. E.

Urriaren 19ra arte, Traña-Matienako Errota Kultur Etxean eta Udal Mediatekan eman daiteke izena Abadiñoako Udalak argazkilaritzari buruz antolatu duen oinarrizko ikastaroan. Urriaren 21etik abenduaren 2ra bitartean, zapaturo egingo dituzte ikastaroko saioak, 10:00etatik 13:00etara. Udalak jakitera eman duenez, matrikula 50 eurokoa izango da herrian erroldatuta daudenentzat, eta 75koa beste herri batean erroldatuta daudenentzat.

Irakurle kluba, martxan

Udalak jakitera eman duenez, azaroaren 7an hasiko dute Abadiñon iaz sortu zuten Irakurketa Klubaren ikasturte berria. Gobernu taldeak jakitera eman duenez, hileko lehenengo martitzenetan, Traña-Matienako Errota kultur etxean egingo dituzte irakurle klubaren saioak, 19:00etatik 20:00etara. Udalak azaldu du saioak gaztelaniaz izango direla, baina eskaria balezko euskarazko irakurle taldea ere sortuko luketela.

Kalean da Astola historia eta ikerketa urtekariaren 11. alea

Durangaldeko historia, ondarea eta gaurkotasuna, Gerediagaren eskutik



Astolaren 11. zenbakiko azalean agertzen den eskulturaren alboan egin zuten argitalpena aurkezteko prentsaurrekoa.

DURANGALDEA Itsaso Esteban Gerediaga Elkartearen ekimenez orain hamaika urte argitaratzen hasi ziren ikerketa eta historia urtekariaren 11. zenbakia aurkeztu dute, astean.

Durangaldeko historiari, ondareari eta gaurkotasunari buruzko bederatzi erreportaje bildu dituzte urtekarian. Markel Onandia ANBOTOk kazetariak eskualdeko artzaintzaren

inguruan idatziriko erreportajea, argazkilari minuteroren ogibideari buruz Jose Mari Uriartek egindako lana edo Berrizko Besoitaormaetxea baserriaren inguruan Teresa Campos ar-

keologoak osturikoa biltzen ditu, besteak beste, 11. Astolak.

Aldizkariaren mila ale kale-ratu dituzte, eta honako salto-kiotan daude eskuragai, bost euroan: Durangoko Arteka, Etxebarria, Hitz eta Urrike liburu-dendetan; Iurretako Urki eta Iurretakopin; Elorrioko Kamikopiak eta Ilargin; Abadiñoako Arrinda estankoa eta Petiten; eta Berrizko Amalur liburu-dendan eta Etxebarria estankoa.

Bestalde, 11. alea zein aldizkari-beste hainbat ale azaroaren 4an Durangoko Andra Mari elizpean ipiniko duten erakusmahai-ere izango dira salgai.

Urtekariaren 11. alearen azaleko argazkian agertzen den eskulturaren alboan eskaini zituzten argitalpenari buruzko azalpenak Izaskun Ellakuriaga erredakzio kontseiluko kideak eta Txelu Angoitia argitalpenaren koordinatzaileak. Izan ere, Mikel Onandia Durangoko arte historialariak urtekarirako idatzi duen *Arte y espacio público* artikuluari lotuta, bisita gidatu bat antolatu dute azaroaren 5erako (10:00etan, gaztelaniaz; eta 12:00etan, euskaraz). Eki-men horretan izena emateko, gerediaga@gerediaga.eus helbidera idatzi edo 946818066ra deitu beharra dago.

BEDERATZI IRAKURGAI

'Artzainak XXI. mendean, pasioa bizirik'
· Markel Onandia

'A la luz de un mismo sol: semejanzas entre la obra del maestro Arbulu y el Crucero de Kurutzia'
· Jesus Muñiz

'Memoria, ukatutako iragana berreskuratzen'
· Iban Gorriti eta Jon Irazabal

'Arte y espacio público: escultura pública contemporánea en Durango'
· Mikel Onandia

'Argazkilari minuterook'
· Jose Mari Uriarte

'Los encinares cantábricos de Durangaldea'
· M^o Carmen Navarro

'Durangaldeko herri-izenak, lurraren bihotz taupadak'
· Felix Mugurutza

'Mancomunidad de Durango, una comarca incompleta'
· Joseba Gorostiza

'Berrizko Besoitaormaetxea, etxolatik baserrira'
· Teresa Campos

A-8ko bidesariaren aurka, jai-giroan kalera

Plataformakoek jendearen iritzia jaso dute

DURANGALDEA M. Onandia A-8ko bidesariaren aurkako plataformakoak kalera atera dira berriro, baina, oraingo honetan, jai-giroan. Eguaztenez egin zuten ekimena, Durangoko San Fausto jaien bezperan, Andra Marian ipinitako postu batez. Pintxoak eta sagardoa eskaini zizkieten postura agertutako herritarrei, eta A-8ko bidesariaren gaiaz iritziak eta proposamenak ere jaso zituzten. Helburu bi horiek buruan irten

ziren kalera, "ekintza solidario eta erreibindikatzaileagaz".

Doakoa izatea

Iaz hasitako protesta jendetsuen ostean, eztabaida handia sortu zen bidesariaren inguruan. 20.000 sinadura batu zituzten, adibidez. Gero, Aldundiak 30 euroko urteko bonua atera zuen, erabiltzaileei begira. Baina, plataformakoak ez daude ados, eta autobidea doakoa izan behar dela uste dute.



Plataformako kide bat sagardoa kupeletik hartzen, herritarrei banatzeko.

UXARTE
SAGARDAOGINTZA

Montorra, 6 ZORNOTZA - Tel.: 946 308 815
www.uxarte.com

ZABALIK OSTIRALETAN
ETA ASTEBURUETAN

ASTEAN ZEHAR ENKARGUZ
Gutxienez 15 laguneko taldeentzako

MATERIAL DE CONSTRUCCION
MACOBER

Eraikuntzarako materiala
MACOBER

Zeramika eta gresa

Eitua Industriagunea, 66 BERRIZ
Tel.: 946 827 890 macober@movistar.es



Hutsik egon daitezkeen bizilekueetatik 69 landa eremuan daude, eta gainerako 77ak herrigunean.

Mañarian hutsik egon daitezkeen 146 bizileku identifikatu dituzte

Baliteke herriko etxebizitzaren %45,6k ez izatea erabilera iraunkorrik

MAÑARIA J.Derteano

Mañarian 320 etxebizitza daude, eta horietatik hutsik egon daitezkeen bizilekuen kopurua handia da: 146. Etxebizitza parkearen egoera jakiteko udalak

agindutako azterketak erakusten duen datua da. Beraz, baliteke herri osoko etxebizitza parkearen %45,6k ez izatea erabilera iraunkorrik. “Proporzio hori izugarri handia da”, balora-

tu dute diagnostikoaren egileek txostenean.

Etxebizitzetan urteko ematen den ur kontsumoa oinarri hartuta atera dute datu hori. Hutsik dauden edo erabilera iraunko-

rrik ez duten 146 bizilekueetatik 69 landa eremuan daude, eta gainerako 77 etxebizitzak herrigunean daude.

Batez ere eraikin zaharrak dira hutsik daudenak. Balizko bizileku hutsen %53 1950-2000 epealdian eraiki zen. Landa eremuari dagokionez, XIX. mendea baino lehenagokoak dira asko.

Ikerketak jasotzen duenez, herriko biztanleriaren zahartze maila progresiboaren ondorioz gaur egun okupatuta dauden etxebizitza parkearen %6,2 (dozena bat bizileku) hutsik gertzeko arriskua dago hurrengo hamarkadan.

Irtenbide bila

Datu horiek joan zen astean egindako herri batzarrean jakinarazi zituzten. Gobernu Taldeko (EH Bildu) Ismene Uriarte zinegotziak azaldu duenez, bazuten susmoa herriko etxebizitza hutsen kopurua handia zela, eta diagnostikoak susmoa baieztatu du. Errealitate hori abiapuntu hartuta, zer pauso eman aztertzen ari direla esan du. Esaterako, landa eremuetan baserriko etxebizitza bat baino gehiago egin ahal izateko ordenantza moldatzea mahai gainean duten gaia da.

ETXEBIZITZAK GUZTIRA

- Landa eremuan: 116
- Herrigunean: 204
- Guztira: 320

HUTSIK EGON DAITEZKEEN BIZILEKUAK

- Landa eremuan: 69 (%59,5)
- Herrigunean: 77 (%37,7)
- Guztira: 146 (%45,6)

BIZILEKU HUTSAK EGITURAREN ARABERA

Kolektiboak:

- Landa eremuan: 3
- Herrigunean: 47

Familiabakarrekoak:

- Landa eremuan: 55
- Herrigunean: 20

Daturik ez:

- Landa eremuan: 11
- Herrigunean: 10

HUTSIK GERATZEKO ARRISKUAN (2027ra artean)

- Landa eremuan: 7
- Herrigunean: 5

BIZILEKU HUTSEN ANTZINATASUNA

1950 baino aurrekoak:

- Landa eremuan: 30
- Herrigunean: 13

1951-2000

- Landa eremuan: 27
- Herrigunean: 42

2001-2017

- Landa eremuan: 5
- Herrigunean: 13

Herriko artistak emanaldi batean elkartzeko proposamena

ZALDIBAR I. E.

Diziplina artistiko desberdinetan diharduten zaldibartarrak jaialdi batean elkartzeko proposamena egin du udaleko kultura kontseiluak. Musika, dantza, literatura, margolaritza, argazkigintza edo beste edozein diziplina artistiko jorratzen duten herritarrei egin diete Zaldibarren deitu duten topaketa horretan parte hartzeko gonbidapena. Bakarka, binaka edo taldeka aritu ahalko dira, gurago duten bezala.

Gurago duten bezala, bakarka zein taldeka aritu ahalko dira parte hartu gura duten artistak

Jaialdiaren datarik ez dute oraindik zehaztu, baina parte hartzeko interesa duten artistek Liburutegian jaso dezakete ekimenaren inguruko informazio gehiago. Han aurkez dituzakete euren proposamenak.

Victor Uriarte atxondarrak irabazi du jaietako argazki lehiaketa

Izurtzako lehiaketara lehenengoz aurkeztu da eta 100 euroko saria irabazi du

IZURTZA J.Derteano

Izurtzako jaietako argazki lehiaketak badu aurtengo irabazlea: Victor Uriarte atxondarrak. Kultura batzordeak eta herriko elkarteek osatutako epaimahaiaren ustez, Uriarterena

izan da jaietako giroa ondoen islatu duen irudia.

Izurtzako argazki lehiaketara lehenengoz aurkeztu da aurtentzen. 2010ean jubilatzen zenetik argizkilaritza hobya da beretzat eta kamera aldean eramaten

du badaezpada. “Goizetan pasealdi bat ematean edo aukera dudanean argazkiak ateratzea gustatzen zait. Jubilatzen nintzenetik hona, askotan ibiltzen naiz. ETBko eguraldi saiora ere sarritan bidali ditut Duran-

galdeko argazkiak”, adierazi du Uriartek.

Trebetasun handiz gauzatzen duen zaletasuna da. Izurtzako ez da lehiaketa bat irabazten duen lehenengo aldia. Iaz Atxondoko Udaleko argazki lehiaketan sari bat jaso zuen. ANBOTOk egutegia osatzeko abiatzen duen argazki lehiaketako irudirik onena ere berea izan zen.

Izurtzan emazteak eta biek jaietako giroa bizitzeko bertara egindako pasealdia aprobetxatu

2010ean jubilatzen zenetik argizkilaritza zaletasuna du eta kamera aldean eramaten du sarritan

zuen argazki irabazlea ateratzeko. Irudian, gazteak Gorritiren animaliekin jolasean ageri dira herriko plazan. 100 euroko saria irabazi du argazki horregaz.

Bi sari gehiago

Bigarren eta hirugarren argazkirik onenentzat ere sariak izan dira. Alfonso Maciasek 75 euro irabazi ditu bigarren argazkirik onenagaz. 50 euroko hirugarren saria Cristina Morentzat izan da.



Argazki irabazlean, gazteak herriko plazan ageri dira, Gorritiren animaliekin jolastean. Victor Uriarte

Elorrioko Alde Zaharreko termitek kezka sortu dute herritarrengan

2018an azterketa bat egingo dute, termitek duten eragina ikusteko



Egoeraren berri emateko Alde Zaharreko bizilagunekin batzartu zen udala.

ELORRIO M.Zuazubiskar Elorrioko Udalak jakitera eman duenez, herritarrengan kezka sortu da Alde Zaharrean termitek izan dezaketen eraginagatik. Hori horrela, herrigune historikoan termitek duten eragina ezagutu eta egungo egoerak nolako ondorioak eduki ditzakeen aztertzeko, Elorrioko Udalak azterketa tekniko egingo du datozen hilabeteetan. “Jakinarazteko hainbat erakinetan termitek daudela; beraz, beharrezkoa da arazoaren diagnostiko bat egitea”, adierazi du Idoia Buruaga alkateak.

Horrez gain, udalak jakitera eman duenez, Buskantza kale-

ko auzotarrek beraien kontura azterketa bat egingo dute dagoeneko, baina termitek kontuagaz udalak urteetan ezer egin ez duela kontuan hartuta, herrigune historikoan azterketa orokor bat egitea beharrezkotzat jotzen dute. “Elorrioko herrigune historikoa nabarmendu behar dugu”, adierazi du Buruagak.

Bestalde, gobernu taldeko kideek ohar batez jakinarazi dutenez, dagoeneko batzartu dira Alde Zaharreko bizilagunekin egoeraren berri emateko.

Azterketaren ordua

Bederatzi aste iraungo duen azterketa 2018ko udaberri eta uda

artean egingo dutela jakitera eman dute Elorrioko Udaleko arduradunek oharrean. “Termitek garai horretan dutela aktibitate gehien adierazi digute adituek. Beraz, orduan egingo dugu azterketa”, azaldu dute.

Azterketari dagokionez, herrigune historikoan dauden egurrezko egituradun etxebizitzak guztietan egingo da. Hala ere, azterketa egitera inor ez dutela behartuko jakitera eman dute.

Horrez gain, kasko historikotik kanpoko norbaitek azterketa egitea gura badu, udaletxean informazioa eskatu behar duela adierazi dute.

Udal tasak eta zergak %1,5 igoko dituzte

ELORRIO M.Z.

Joan zen asteko bilkuran, hiru urtez izoztuta egon diren zergak eta tasak %1,5 igotzea erabaki zuten EH Bildu eta EAJren aldeko botoekin, Ondasun Higiezinaren Zerga salbu. Herriaren Eskubidea igoeraren kontra agertu zen.

Bestalde, Elorrioko merkataritza bultzatze aldera, 2018an hobari bi emango dituztela jakitera eman zuen Idoia Buruaga alkateak. Hobari bat %95ekoa izango dela eta bestea %50ekoa jakitera eman zuten.

Ikasleek garraio-laguntza eskatu dezakete

ELORRIO M.Z.

Aurten ere unibertsitate eta formakuntza zikloetako ikasleek garraio gastuetarako laguntza eskatzeko aukera izango dute Elorrioren.

Udalak prentsa ohar bidez jakitera eman duenez, garraiorako laguntza hau eskatzeko epea zabalik dago dagoeneko, eta urriaren 30a baino lehen eskatu beharko da udaletxeko Herritarren Arreta Zerbitzuan.

SEI HANKAKO MAHAIA

PILAR RIOS RAMOS
PSE-EE



Herri Akordioa

Emakumeok ondotoxo dakigu zer den sexu-erasoa jasatea. Ia denok jasaten dugu mota horretako erasoren bat gure bizitzako une batean edo bestean. Gainera, emakumeen aurkako indarkeria giza eskubideen urraketarik dramatikoen eta ohikoena da. Horregatik, hori konpontzeko pertsona guztien ardura izan behar du. Durangon, Udalaren Gizarte Ekintza Sailak indarkeria matxistaren aurkako Herri Ituna bultzatu zuen iaz, garaitu honetan. Elkarte, saltoki eta ikastetxe ugari bildu ziren haren inguruan. Herri-itun horri esker, nahi genuena lortu genuen, hau da, herritarren buruan sartzea arazo horren erantzukizuna partekatua dela. San Faustoak igaro ondoren, ituna ez zen tiradera batean ahaztuta geratu. Lanean jarraitu dugu, pertsona eta entitate gehiago tartean sartzeko, eta oinarri soziala zabalteko lortu dugu. Errazagoa da erasoak geldiaraztea, gizarte osoak konpromisoa hartzen badu emakumeen eskubideak defendatzeko, arazo polizial hutsa dela pentsatu beharrean. Zehatzago esanda, emakumeek espazio publikoa askatasun eta segurtasun osoz erabiltzeko duten eskubidea babestu behar da. Horregatik, gonbit egiten dizut akordio honen bat egin dezazun. Ezinbestekoa da gizarte demokratiko, partaidetzako, solidario eta berdintasuneko bat lortu nahi duten pertsona guztiak batzea. Egin ezazu zuek, amagatik, ahizpa edo arrebagatik, alabagatik. Durangoko herrian indarkeria matxista betiko desagertu dadin lortzeko.

Era berean, sexu erasoak gertatu eta gero salatzeaz koteraino gaude. Behingoz gelditu nahi ditugu. Deskargatu EraSTOP aplikazioa.

Errebonbilo kalearen inguruko batzarra

ELORRIO > Errebonbilo kaleko urbanizazio prozesuan herritarren parte-hartzea bultzatzen dabil Elorrioko Udala. Hori horrela, hilaren 18an, 18:30ean, proiektua erredaktatzeko ardura duen taldeak urbanizazioaren bi proposamen aurkeztuko dizkie herritarrei udaletxean egingo den tailer publiko batean.

50 euroko diru-paper faltsu bi, Zornotzan

ZORNOTZA > 2017an Euskal Autonomia Erkidegoan 50 euroko diru-paper faltsuen erabilera hazi egin dela jakinarazi du Ertzaintzak prentsa ohar bidez. Oraingoan, 2017an zehar, 31 billete faltsu aurkitu dituzte. Hiriburuetan ez ezik herrietan ere aurkitu dituzte, tartean Zornotzan.

Doako euskara klaseak, ikasten jarraituz gero

OTXANDIO > Euskaraz ikasteko diru-laguntzak eskatzeko epea martxan dago. Eskera udaletxean egin daiteke. Ikasturte hasieran zenbatekoaren erdia jasotzen da. Gainerakoa hurrengo ikasturterako izen-ematean jaso daiteke. Beraz, euskara ikasten jarraitzen duenak dohainik izango du ikasturtea.

IRITZIA

astekaria@anboto.org
asteartea 17:00ak arteko epea

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9, 48215 - Iurreta • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia

DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO

Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

ANBOTOk ez du bere gain hartzen kolaboratzaileen zutabeetan iritzi artikuluetan edo gutunetan adierazitako eta emandako iritzien erantzukizunik.

merkataritza gida sarean

anboto.org/gida

Ezagutu eta erabili Durangaldeko merkataritza gida euskaraz eta sarean!

Merkataritza gidan agertzeko deitu: 946 217 902





Isabel de Blas Buruaga | Bizitzen Fundazioko Berdintasun proiektuetarako teknikaria | Elorrio, 1973



“Estereotipoak onartzen ditugunean gure aurkako tranpa bat sortzen ari gara”

Adinkeria identifikatu eta horri aurre egiteko tailerrak antolatu ditu Bizitzen Fundazioak

> **BERBAZ** Aitziber Basauri

Adinkeria gure gizartean ematen diren hiru diskriminazio mota handienetako bat da arrazismoaren eta sexismoaren atzetik. Emakume zaharrek pairatzen dute diskriminazio hori, batez ere, eta gizartean oso modu naturalizatuan dago ezarrita. Horri aurre egiteko, ‘Zaharalduntze feminista’ tailerrak antolatu ditu Bizitzen Fundazioak Durangaldean. Emakundek diruz lagundutakoak dira tailerrak.

Adinkeria da pertsona bat adinarengatik diskriminatzea. Gero eta hedatuago dagoen diskriminazio mota da?

Bai. Oso barneratuta daukagu adinkeria. Mikroadinkeria piloa ematen dira egunero. Mikro horrek ez du esan gura txikiagoak direnik, oso barneratuta, normalizatuta, daudela baik. Naturalizatuta daude. Adin batera heltzean edo zahartzarora heltzean, oso estereotipatuta gaude eta estereotipo horiek bazterketara garamatzate. Beraziki, emakumeak. Adinkeria eta sexismoa edo matxismoa gurutzatzen direnean, bazterkeria askoz ere latzagoa izaten da.

“*Egungo gizartean, are eta zaharragoa izan orduan eta botere gehiago galtzen dugu*”

Zeintzuk dira egunero emandako mikroadinkeria horiek?

Adibidez, emakume zahar bat amama izatea espero izatea. Emakume zahar bati amama deitzea. Ez dauka zertan amama izan. Izan liteke bestelako harreman batzuk izatea eta ez familiarak, beti amatasun eta amatasun horretan oinarrituak. Edo zaintzailea izan behar duen uste hori: tuperrak egiten dituen. Horregatik aukeratutako leloa: *Tuperrak prestatzeko baino gehiagorako gara.*

Mikroadinkeria horiek landu gura dituzue tailerretan?

Gura duguna da emakume zaharrek euren egunerokoan zeintzuk adinkeria jasaten dituzten identifikatzea eta gazteagoek barneratuta ditugun mi-

kroadinkeria horiek ikusten joatea. Adinkeria identifikatu dugu, ondo ulertu. Betaurreko horiek jantzi eta egoera horien aurrean andrekin euren zer egin gura duten azaltzea gura dugu. Emakumeak batzea ez da oso ohikoa eta hori berori pauso bat da ahalduentzeko prozesuan. Horren barruan, zenbait belaunalditako andrak batzea ere ahalduentzeko beste era bat da. Gazteak ere bai, baina, bereziki, emakume zaharrak, zaintzan estereotipatuak, arlo pribatutik atera eta beste batzuekin elkarrekin ahalduentzeko balio du.

Emakume zahar eta gazteei zuzendutako tailerrak dira?

Nagusiei bideratuta daude, baina belaunaldi arteko tailerrak dira. Adinetik haratago gure artean errespetuz jokatzeko, adinkeriarik gabe jokatzeko. Batzuek besteengandik ikasteko ere bai.

Adin tarte gero eta zabalagoa da zaharrena.

Gizartearen zahartze prozesua bizi dugu. Gero eta urte gehiago bizi gara, eta andren bizi-itxaropena gizonena baino altuagoa da. Emakume zaharrak etorki-

zuna izango gara. Baina, horrek ez du esan gura hobeto biziko garenik. Gure bizitza urteetan zenbat eta luzeagoa izan, jazarpena gogorragoa da kuantitatiboki zein kualitatiboki. Egungo gizartean zenbat eta zaharragoa izan, orduan eta botere gehiago galtzen dugu. Egoitza batean sartzean ere, intimitate osoa galtzen dute, erabakitze aukera.

Botere galtze horri aurre egitea da helburua?

Desjabetze edo desahalduntze horri aurre egitea da helburua, baina ez bakardadetik abiatuta, kalean baizik. Emakumeak saretea ere bada helburua. Feminismotik oso argi izan dugu beti ahizpatasunean oinarritutako andren arteko harremanek, sareteak, ahaldundu egiten dutela, bai arlo pertsonalean, bai ko-

lektiboan. Emakume gazte eta nagusiek osatutako sarea osatzea da helburua, adinkeria ezagutzera emateko eta horri aurre egiteko. Adinkeria hor dago, eta behin betaurrekoak jantzita ikusten da, bazter guztietan.

Belaunaldien arteko esperientziak partekatzeko eta eztabaidatzeko erreferenteak falta direla ere badiozu.

Emakume zaharren inguruan dagoen adinkeria itsutu egin gaitzake, edo erreferente faltaren sententzia eman. Amama ez den beste erreferente batzuk falta ditugu, eta arlo horretan lan egin behar da, erreferenteak bilatzea oso garrantzitsua da. Izan ere, emakume zaharrei buruzko estereotipoak onartzen ditugunean gure aurkako tranpa bat sortzen ari gara emakumeok: zahartzarora heltzean estereotipoak ere jazarpen moduan izango ditugu aurrez aurre, eta uneren batean horretan sinetsiko dugu. Tranpa horretan ez jaus-teko ere egin gura dugu lan.

‘Zahar’ hitza azpimarratuko duzue tailerretan?

Bai. Euskaraz ‘atsoa’ edo ‘agurea’ izateak balio desberdina dute. Guk emakume zaharri eman gura diogu balioa. Estereotipoz jositako berba da ‘atsoa’: ‘okerra’, ‘sorgina’, ‘mesfidantzaz begiratzekoa’... baina, bestetik, zaintza guztia berari ematen diogu. Emakume zaharrak hori baino gehiago dira, eta gero eta talde heterogeneoagoa izango dela uste dugu.

Gizartea da adinkeria horretan murgiltzen gaituena?

Estereotipoak gizarteak sortzen ditu, guk geuk. Adibidez, telebistan azaltzen diren emakumeak 30-40 urtera artekoak dira, asko jota. Bat-batean desager-tzean egiten dira, eta berriz agertzean, zahartuta, askotan ridikulizatuta azaltzen dira. Gizartean edertasuna eta gaztetasuna botereagaz lotzen dira eta zahartzarora ez da edertasun kanon jakin batean sartzen; andrak boterea galduz doaz. Inbisibilizatzen doaz gure emakume zaharrak.

Abadiñon, urriaren 19tik azaroaren 30era, Errota kultur etxean. Tel.: 944 669 420

Durangon, azaroaren 7tik abenduaren 5era, Bizitzen Fundazioaren egoitzan. Tel.: 946 232 744

Lurretan, urriaren 23tik azaroaren 27ra, Ibarretxe kultur etxean. Tel.: 946 215 372

Elorrian, azaroaren 8tik abenduaren 13ra, Aldatzekua jubilatuen etxean. Tel.: 946 570 809

Zabalik dago izena emateko epea

> GIZARTEA Markel Onaindia

Senide batek gaixotasunagatik autonomia galtzen duenean, beste pertsona baten laguntza behar du eguneroko bizitzarako ekintzak egiteko. Egoera horrek asko eragiten du familian eta, batez ere, pertsona bati dagokio bera zaintzeko ardura. Ia gehienetan, emakume bati. Oстера, Amankomunazgoak Durangoko Udalgaz batera gestionatu eta garatzen duen eta Aldundiak babesten duen Zaindu programakoen ustez, zaintzaren ardura banatu beharra dago, eta, gainera, ez du generorik, ezta adinik ere. Bide horretan, umekin sentsibilizazio kanpaina bat hasi du Esther Alonso teknikariak.

Zergatik jo duzue umeengana sentsibilizazio kanpainan?

Sentsibilizazio ekintzak zehaztu behar genituela ikusten genuen. Garbi daukagu erantzukizun partekatua sustatzea oso garrantzitsua dela, zaintzaile-rik gehienak emakumeak baitira. Hori aldatzeko, sentsibilizazio lan handia egin behar dugu. Adibidez, emakume askok uste dute eurek izan behar dutela derrigorrez etxekoan zaintzaile. Gizartea neurri batean aldatu gura badugu, umeengana

“Emakume askok uste dute eurek izan behar dutela derrigorrez etxekoan zaintzaile”

Zaindu programakoek ikastetxeetara daramate zaintzaren gaia, gizartea errotik aldatzen hasteko

na jo behar dugula ikusi dugu. Iaz LHko 5. ta 6. mailakoekin hasi ginen, eta aurtun 3. eta 4. mailakoengana joko dugu.

Eta zer helburu duzue proiektu horregaz?

Mendekotasuna, zaintza lanak eta, bereziki, senide zaintzaileen irudia ikusgai ipintzea da helburua, zaintzaren kontzeptu zabalagoa eta positiboagoa eskainita. Edozeinek parte hartu ahal du: ez du zerikusirik generoagaz, ezta adinagaz ere. Esaterako, ume bat mendekotasuna duenATEGAZ kartetan jolasten bada, hori ere zaintza da. Bestalde, bizitzako edozein momentutan besteen beharrezana eduki ahal dugu. Ezin dugu pentsatu gaztea izatearren garaiezina naizela.

Zelan hurbilduko zarete umeengana?

Lehenengo pausoa ikastetxeetara jotzea izan da, programa azaltzeko. Bigarren pausoa udal liburutegira joatea izan da, eta



Esther Alonso, Kurutzia, Adinekoen Udal egoitzako bulegoaren aurrean.

han umeentzako liburuen zerrenda bat egin digute. Zaintzaileei buruzko libururik ez dago, baina gaixotasunen ingurukoak, bai. Horrela, umeak gaian sartzen hasiko dira.

Lanketaren ardatza antzerkia izango da.

Bi edo hiru saio izango dira ikastetxearen arabera, eta mikroantzerkien bitartez istorio bat kontatuko dugu. Lehen saioan prestaketa egingo dugu. Aitite Migel, alaba Leire, seme Iñaki, Julen umea, Nerea psikologoa, Pello erizaina eta Idoia gizarte langilea dira protagonistak. Gaiak eszenaka landuko ditugu, tonu positiboan. Nork zaindu berba egiten dute, gizarte zerbitzuetara doaz, eguneko zentrorra ere bai... Bigarren saioan antzezpena egingo dugu. Hirugarrena eginez gero, hausnarke-tan sakonduko genuke. Durangaldeko hainbat ikastetxetan onartu dute ekimena, eta esker-rrak eman gura dizkiet.

Ikastaro eta informazio ugari daude aukeran senide zaintzaileentzat

Zaindu programa zaintzaileei begirakoa da, eurek hezteko eta ondo sentitzeko

> DURANGALDEA M. Onaindia

Zaintzaileek laguntza behar izaten dute egunerokotasuna hobeto eramateko. Horregatik, Zainduen baitan hainbat azpi-programa garatzen dituzte.

Informazio eta formazioaren atalean, gai hauek lantzen dituzte: gaixotasunak eta dependentzia egoerak, arreta zerbitzuak, gizarte eta komunitate baliabideak... Gainera, Durango Irratian zaintzaileei begirako saio bereziak garatzen dituzte.

Laguntza psikologikoaren atalean, norbera zaintzen ikasteko tresnak eskaintzen dituzte; taldeka batu eta esperientziak trukatu, hartu-emanak landu... Zaintzari aurre egiteko baliabideak ere bai: erlaxazioa, denboraren antolakuntza, pentsamendua eta emozioak, ohi-tura osasuntsuak... Durangon, Elorri, Otxandion eta Zaldibarren sortu dituzte taldeak.

Oinezko ibilbide osasungarriak antolatzen dituzte. Izan

ere, zaintzaile ugarik etxean ordu asko pasata, ariketa fisiko gutxi egin eta hartu-eman sozialak galtzen dituzte. Azken hori funtsezkoa da ongizate psikiko egokiari eusteko.

Zaintzaile bakoitzaren ibilbidea desberdina izaten da. Batzuek urteak daramatze programako ekintzetan parte hartzen; beste batzuek, oster, informazio zehatz bat besterik ez dute gura, eta hor amaitzen da beren ibilbidea.

ZAINDU PROGRAMAKO IKASTAROK**NORBERE BURUA ZAINDU**

• **DURANGO**
Adinekoen Udal Egoitzan
Urriak 18 eta 25
Azaroak 8, 15, 22 eta 29
Abenduak 13
15:30etik 17:00etara

• **ZALDIBAR**
Liburutegi Zaharrea

Urriak 18 eta 25
Azaroak 1, 8, 15, 22 eta 29
Abenduak 13

LAGUNTZA BIKOTE ZAINTZAILEENTZAT

• **DURANGO**
Musika eskola
Urriak 2, 16 eta 30
Azaroak 13 eta 27
Abenduak 4

IBILBIDE OSASUNTSUAK

• **DURANGO**
Urriak 23 eta 30
Azaroak 6, 13, 20 eta 27

ALZHEIMERRA ETA BESTE DEMENTZIAK

• **ELORRIO**
Iturri
Urriak 23 eta 30
Azaroak 6 eta 13

BERE BURUA AKTIBATU

• **DURANGO**
Pinondo
Azaroak 20 eta 27



Mendekotasuna duten senide zaintzaileentzako laguntza, prestakuntza eta orientazio zerbitzua

Ordutegia: 9:00-13:00 · Tel.: 946 030 046 / 946 200 546 · durangaldea@zaindu.eu
www.mdurango.org




Durangoko Merinaldearen
Amankomunazgoa
Mancomunidad
de la Merindad de Durango



Foru Alundia
diputación foral



DURANGO
Udala · Ayuntamiento



Sartu www.plazanbazan.eus web atarian eta denbora-pasa hauen erantzunekin batera beste hainbat aurkituko dituzu.



IRUDI ENGAINARIAK

Eskuinean dituzun burbuila edo borobiltxo horiek beheko irudi nagusitik hartuak ematen dute, baina egia esanda, bederatzitik bakar bat duzu zuzena. Zein da?



BAZAN

9

www.plazanbazan.eus
Egilea: Garbine Ubeda (Aiarri)




zazpikoa

Aurki itzazu bi irudi hauen artean dauden zazpi diferentziak.



Beldar goSetia

Zenbat hosto jango ditu beldarrak bere kuskuan sartu aurretik? Horixe jakin nahi baduzu, beldarra dagoen tokitik abiatu eta, hostoz hosto, kuskuraino heldu behar duzu, ezkerrera, eskuinera, gora edo behera mugituz (sekula ez, diagonalean).



BaSoan galdua

- 1 Zenbat otso ikusten dituzu?
- 2 Eta zenbat unbi?
- 3 Ba al da sugerik? Zenbat?
- 4 Ba al da trikurik? Zenbat?
- 5 Ba al da txoririk? Zenbat?
- 6 Ba al da arratoirik? Zenbat?
- 7 Eta azeririk?

Kids&Us
school of english

ENGLISH FOR LIFE

Ingelesa urte 1 etik aurrera

MATRIKULAZIO EPEA ZABALIK!

Kids&Us Durango · Durangoko Plateruen Plaza, 8 · T. 609 533 343 · durango@kidsandus.es

**UDAKO
3. ARGAZKI
LEHIAKETA**

anboto 
komunikabideak

Eman zure botoa udako argazki lehiaketan

Urriaren 2tik 15era

Bozkatu www.anboto.org webgunean

ANTOLATZAILEA

anboto 
komunikabideak

LAGUNTZAILEAK

 **EROSKI** bidaiak
Antzetan? Ezan legu!

 **EROSKI**
Abadiño Zurekin

 **elaia**.
ir

> ZINEMA Itsaso Esteban

Sitgeseko Zinema Fantastikoaren nazioarteko jaialdian, film fantastikoen sailean parte hartuko du *Errementari* filmak asteburu honetan. Lantalde artistikoan zein teknikoan Durangaldeko hainbat partaide izan ditu Paul Urkijo arabarrak zuzenduriko film horrek.

Kandido Uranga, Ramón Agirre, Josean Bengoetxea, Jose Ramón Argoitia eta Eneko Sagardoy aktore ezagunekin, Durangaldeko lau gaztetxo agertzen dira *Errementari* pelikulan: Nahia Garcia (12 urte), Uma Bracaglia (9 urte), Haizea Garcia (10 urte) eta Eloi Ruiz de Erentxun (11 urte).

XIX. mendean Araban kokaturiko istorioa da *Errementari* filmean kontatzen dena. Neska to umezurtz batek baso zarratu batean bizi den Patxi errementariaren sekretua deskubritzen dueneko kontaketa du filmak.

Filmaren aitzakian lagunak egin dira Nahia, Uma, Haizea eta Eloi Durangaldeko gaztetxoak, eta nahiz eta “aspaldiko” kontuak diren, oso gogoan dituzte filmari lotuta bizi izandako esperientziak. Platerueneko mahai borobilean jesarrita azaldu dizkiote ANBOTORI.

Adibidez, *castinga* dute go-goan. Hautaketa probetan “denbora guztian beldur aurpegia ipintzeko eskatzen ziotela” akordatzen da, adibidez, Uma Bracaglia. “Txulita” plantak egin zitzala eskatzen ziotela kontatu



Eloi Ruiz de Erentxun, Nahia Garcia, Uma Bracaglia eta Haizea Garcia Durangaldeko haurrak daude filmeko aktore taldean.

Estreinaldiaren atarian, ‘Errementari’ filmeko partaide izatearen ilusioa umeen begietan

Asteburu honetan Sitgeseko Fantasiako nazioarteko jaialdian estreinatuko dute ‘Errementari’ filma

du, aldiz, Haizea Garcia atxondarrak. Batzuek gurasoei baimena eskatu zieten hautaketa prozesu horretan parte hartzeko, eta beste batzuei, hain justu ere, euren gurasoek proposatu zieten aurkeztea. Filmean parte hartu ahalko zutelak jakiteak eragin zien ilusioa antzematen da beraien begietan baietza jaso zuteneko uneaz dihardutenean.

Arabako Korres herrian egindako grabaketetan ibili ziren elkarregaz Durangaldeko lau gaztetxoak. Grabaketatik makillajeko ordu amaigabeak, pasatu zuten hotza, jantziak, “janaria oso gozoa zegoela eta nahi beste jan” zezaketela gogoratzen dute, besteak beste. “Paul oso majoa eta pazientzia handikoa” zela ere bai. Izan ere,

filmean “minutu batekoa den eszena bat” osatzeko egin beharreko lan guztiaz ohartu baitziren lau antzezleak, *Errementari* filmaren grabazioan.

Antzeztea gustatzen zaie laurrei, baina bestelako zaletasunak ere badituzte. Balletean elkarregaz dabilta Eloi eta Uma, Haizea ere dantza eskoletara joaten da, eta atletismoa egiten

du Nahiak. Futbola eta musika ere gustatzen zaizkie.

Ez dute pelikula oraindik ikusi, baina *Errementari* filmaren bigarren parte egingo balute, dudarik barik berriro parte hartzeko prest leudeke laurak, zinemako aktore moduan jardutea gustuko dutelako. Dantzari buruzko film bat egitea ere gustatuko litzaielakeela diote laurak.



Eneko Sagardoy
Aktorea
Durango
1994

Sarta el deabruaren papera egiten du Eneko Sagardoyk ‘Errementari’ pelikulan. Sarta el deabrua *Harren ganbara eta emeen sotoa* antzezlanean gorpuztu zuen pertsonaiaren antza duela dio aktore durangarrak, eta “antzerkiko lengoia zinemara ekartzeko aukera”, eman diola. “Fisikoki oso pertsonaia exigentea da”, nabarmendu du Sagardoyk. “Beldur handia ematen du, baina, aldi berean, estereotipoetatik aldentzen den deabru bat da, eta uste dut ikusle batek baino gehiagok enpatizatuko duela beragaz”, dio Sagardoyk: “Deabrua benetan nor den kolokan jartzen da filmean; lur azpian baino, lurrazalean ez ote dauden deabruak...”.

2016ko abenduan eta aurtengo urtarrilean egin zuten *Errementari* filmaren filmazioa, baina Durangoko antzezlea iazko udan hasi zen bere pertsonaia prestatzen. Pelikula ikusteko irrikan dago, eta espektatiba oso altuak dituela aurreratu du. “Aurreikusten dut pelikula inpaktantea izango dela; magia eta fantasia handikoa”.



Lara Izagirre
Gariza Films ekoiztetxea
Zornotza
1985

Proiektuan hasieratik parte hartu duen Gariza Films ekoiztetxearen arduraduna da Lara Izagirre zinema zuzendari zornotzarra. “Filmeko protagonistetako bat ume bat izango zelako, eta guk *Un otoño sin Berlín* filmean egin genuen lana gustuko zutelako ipini ziren gugaz harremanetan”, azaldu du Izagirrek. Umeen *castingaren* ardura izan du Zornotzako ekoiztetxeak, eta baita filmazioan umeekin entseguak egitearena ere. Gariza Films-ek parte hartu duen lehenengo koprodukzioa da *Errementari*. “Oso pelikula ausart eta harrigarria” da Izagirreren berbetan. “Guk orain arte egin ditugunetik oso urrun dagoen proiektu bat da, baina oso berezia iruditzen zaiguna: euskaraz egiten den fantasiako lehenengo film luzea da, eta horrek balio handia duela uste dugu. Gainera, zuzendariaren lehenengo film luzea ere bada”.

Astelehenetik *Vitoria 3 de marzo* filmean lanean dabil Gariza Films. “Kontatu beharra zegoen istorio bat, zine soziala”, kasu honetan.



Diego Martin
Attrezzista
Durango
1976

Filmazioko atrezzista lana egin du Diego Martin durangarrak ‘Errementari’ pelikulan. Dekorazio departamentuaren barruko lana da atrezzistarena, eta grabazioak irauten duen bitartean dekoratu guztiak behar bezala egotea da bere ardura. Dozena bat urte daramatza Diego Martin durangarrak lan horretan. Aurten, *Cuando dejes de quererme* edo *Morir* filmeetan egin du lan, besteak beste. Duela bi urte, *Aitaren etxea* telebistako sailean ibili zen. “*Errementari*ko istorioa 1840koa izanik, pelikulan agertuko diren objektuek sasoi hartakoak diruditelak ziurtatzea izan da nire lana, filmaren ambientazioa”. Ez du oraindik filma ikusi, baina oso asebeteta dago egindako lanagaz. “Euskal Herrian ez delako ohikoa euskarazko film fantastikoak grabatzea, eta bertan parte hartzeko aukera izan dudalako”, adierazi du.

Orain, *Vitoria 3 de marzo* filmaren grabaketetan dabil. Aste honetan hasi dute filmazioa, eta dekoratuen prestaketan dabil Martin.

> **MUSIKA** Markel Onaindia
Arantza eta Pantxo bikoteak disko berria aurkeztuko du datorren barikuan, hilaren 20an, Elorrioko Arriolan. Ibilbide luzea eduki arren, bigarren diskoa dute, *Todo Cambia* izenekoa. 20:30ean hasiko da euren herrian eskainiko duten kontzertua, 5 euroko sarreragaz.

Mercedes Sosa argentinarraren abesti sonatua bertsonatu izana da titulurako arrazoi nagusia. Ez bakarria, ordea. Batez ere rantxerengatik ezagunak dira Arantza eta Pantxo, baina, oraingoan, beste ukitu bat eman diote diskoari, eurak aldatu dira, eta hortxe izenaren beste zergatia. Argentinan jaiotakoa da Pantxo, eta herrialde hartako iparraldeko musika tradizionala txertatu dute lehenengoz diskoan, Arantzak dioenez. 14 abestik osatzen dute lan berria.

Berrizko Lorentzo Records estudioan grabatu dute diskoa, laukote eran, eta emaitzagaz pozik geratu direla dio abeslari elorriarrak. Barikuan jai-giroan ospatuko dute.

Argentina iparraldeko musika dakarte Arantzak eta Pantxok

Arriolan aurkeztuko dute 'Todo Cambia', datorren barikuan, 20:30ean



Elorrioko Ilargi dendan eta emanaldietan eskuratu ahaliko da disko berria.

GEURE DURANGALDEA

ANTTON URIARTE SALTERAIN

Musikaria



BAM!

Ikasia dugu leihoket lau-kiak behar dutela, hala munduak biribila. Ur txorrotak, bestalde, eskura, garbia eta etengabea. Konexioek eta internetek bizkorra izan ezean badugula frustratzeko nahikoa motibo, argia joan ohi denean munduaren akaberan garelako sinesteko beste.

Esaten da kantu batek arrakasta izan dezan es-tribillo itsaskor bat eta hiru minutu eta erdi iraun beharra duela, ez gehiago, ez gutxiago, arren.

Galdera guztiek izan behar dutela erantzun bat, gertatu edo ematen den guztiak motibo eragile bat. Uste dugu, era berean, gure egia dela egia zuzen bakarra, eta gainontzekoenak duela okerretik zerbait. Zuria eta argia direla ona, gaizkia beltza eta iluna diren bezala. Negar egin behar duenak ezkutuan egin behar duela, eta irribarre agerian, miseriak hobe direla ostondu, alegia, eta arrakastak ozen hedatu. Eguneroko agendan, minutu bat galtzeko tartekak berak ezin duela lekua izan gure bizimodu honetan. Eta garai zehatz batean, jakina behar dugula zer nahi dugun guretzat, zein bide urratu hurrengo eta non jarri jomuga. Izan ere, sinetsita gaude ortzemuga begibista luzatzen denak mugatzen duela.

Eta ezustean, BAM! Zein ederra den kolpean molde guztiak hankaz gora jartzen dizkigutenean, berriz puzzlea osatzen hasi behar hori!

Finalurrekoetarako txartela badu Amurizak

Urriaren 7ko Zallako saioa irabazi zuen Amurizak

> **BERTSOLARITZA** I. E. / M. O.
Miren Amuriza Berrizko bertsolaria izan zen lehenengo sailkatua joan zen zapatuan Zallan jokatu zuten Euskal Herriko Bertsolari Txapelketako laugarren final-laurdenean. 700 puntu eta erdi batu zituen. Eneko Abasolo *Abarkas* iurretarrak ere kantatu zuen saio horretan, eta bosgarren postua lortu zuen (615,5 puntugaz).

Miren Amuriza berriztarrak saio bikaina burutu zuen, eta 700 puntuko langa pasatu zuen, orain arte beste bi bertsolarik soilik gainditu dutena. Zallako saioa irabazita, finalurrekoetarako zuzeneko txartela eskuratu du Berrizko bertsolariak.

Bihar, Tolosan, Beñat Lizasok, Eneko Lazkozek, Etxahun Lekuek, Jon Maiak, Maddalen Arzallusek eta Xabat Gallebeitiak jokatu dute seigarren final-laurdena.

700 puntuko langa pasatu zuen Amurizak Zallako saioan. Finalurrekorako txartela poltsikoan du

Igor Elortza bertsolari durangarra izango da txapelketan jardungo den Durangaldeko hurrengo. Urriaren 28an arituko da, Bastidako saioan.

Urriaren 31ra arte eman daiteke izena Azokan

Hasi da guneetan parte hartzeko izena ematea

> **DURANGOKO AZOKA** I. E.
Urriaren 31ra arte, www.durangokoazoka.eus webgunearen bitartez helarazi ditzakete sortzaileek euren lanak Azokako guneetan aurkezteko proposamenak. Ahotsenea gunearen kasuan, e-mailez egin behar da izen-ematea (ahotsenea@durangokoazoka.eus).

Areto Nagusia, Kabi@, Ahotsenea, Plateruena, Sagunbarra, Irudienea, Szenatokia eta Azoka TB dira Durangoko Azokako guneak, eta bakoitzak programazio bat aurkeztuko du 52. Durangoko Azokako egunetarako, abenduaren 6tik 10erako, hain zuzen. Iazko edizioan 250 kultur ekitaldi baino gehia-

go antolatu zituzten Durangoko Azokako guneetan: kontzertuak, solasaldiak, proiektioak, hitzaldiak, antzezlanak...

Durangoko Azokako helduen tailerretarako izen-ematea ere urriaren 31ra arte zabaldu dute

Azokan eskainiko dituzten tailerretarako izen-ematea ere urriaren 31ra arte dago zabalik. Durangoko bondardaketa-aren inguruko bisita gidatua eta rap eta bikoizketa tailerrak eskainiko dituzte, adibidez.

Los amantes del Casco Viejo
de Patxo Telleria

Urriaren 28an
20:00etan

Sanagustinalde, 12 - Tel.: 946 030 021
sanagustin@durango.eus

San Agustin KULTUR GUINEA

PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia www.plateruena.eus
Landako etorbidea, 4A | 48200 Durango | Tel.: 946 030 300

JAT ETX EA

EGUNEKO MENUA
OSPAKIZUN BEREZIAK

URRIAK 27
20:00etan
URTEURREN JAIA LUHARTZ JAIALDIA

URRIAK 29
19:00etan
DURANGO 1936 OMENALDIA

URRIAK 31
21:30ean
RUPER ORDORIKA KONTZERTUA

“Athletic taldean jokatzera ilusioz hartu dugu, baina baita erantzukizunez ere”

Durangaldeko bost lagun Athletic futbol taldean dabiltza; hiruk estreinaldia izan dute Castelló-n

> FUTBOLA Joseba Derteano Athleticen ezkutua pisu handia du. Kamiseta zurigorria jantzita ehun urtetik gorako historia eta milaka zalaren ilusioa zelaiaren defendatzea ez da txantxetako ardura, baina Durangaldeko bost lagunek erronka onartu dute. Saioa Ortiz berriztarra, Suzette Amilia eta Javi Nuñez elorriarrak, Aitor Alberdi zaldibartarra eta Sergio Vadillo abadiñarra Athleticen jokalariek dira, eta aurten abiatu den Genuine Ligan parte hartzen dute. Aniztasun funtzionala dutenei bideratuta dagoen ligako lehenengo partidua joan zen asteburuan jokatu zuten, Castelló-n (Valentzia), eta sekula ahaztuko ez duten bizipena izan zela adierazi dute. “Urte asko joan ostean ere ondo gogoan izango dugun asteburua izan da”, dio Saioa Ortizek.

Bost jokalarientzat futbola ez da kirol arrotza. Geu Be elkarteko kideak dira eta izen bereko taldeagaz Euskadiko Ligan jokatu izan dute. Baina Athleticen jokatzera “beste mundu bat” dela onartu du Javi Nuñezek. Denak Athletic zaleak dira — Nuñezek Athleticen lehoia tatuatuta du hankan — eta “ilusioz” ez ezik “erantzukizun handiz” dihardute. “Amets bat da eta oso pozik gabiltza, baina badakigu Athletic zer den eta ez gabiltza denborapasa”, abisatu du elorriarrak.

Sentimendu asko pilatu zitzaizkien Castelló-n emandako asteburuan. Autobusetik jaitsi eta zaleak txaloka zain izatea “hunkigarria” izan zela gogoratu du Ortizek. Aldageletan, hasieraz zegoen partiduan zentratuta zeudela, urduritasunak hartu zituen. Harrotasuna gailendu

Denak Athletic zaleak dira eta “ilusioz” ez ezik “erantzukizun handiz” dihardute taldean

Bost jokalarientzat futbola ez da arrotza; Geu Be elkartegaz Euskadiko Ligan jokatu izan dute

zitzaien ondoren, zelaira irteterako momentuan. Une berezia izan zen Saioa Ortiz taldeko kapitainarentzat, denen buruan Athleticen bandera eramateko ardura izan zuelako. “Badakit aita oso harro egongo zela nitaz, Athletic zale sutsua zen eta”, gogoratu du. Partiduan Aitor Alberdi bihurtu zen protagonista. Bere idoloa den Iker Muniñen 10 zenbakidun kamiseta jantzita, gol erabakigarria sartu zuen.



Aitor Alberdi, Sergio Vadillo, Javi Nuñez, Saioa Ortiz eta Suzette Amilia Athletic taldeko bost jokalariek, Durangon.

Atezainaren aurrean bakarrik geratu eta, odol hotza erakutsiz, hanka artetik sartu zion baloia. Eta zorramena nagusitu zen jokalaria eta zaleen artean. “Duda barik gure zaleak izan dira denetan onenak”, ziurtatu du Vadillok.

Saioa Ortiz, Aitor Alberdi eta Sergio Vadillo sentimendu horiek denak kontrolatu guran zebiltzan bitartean, bestelako sentipen bat nagusitu zitzairen etxean geratu ziren Suzette Amilibiari eta Javi Nuñezi: inbidia. Urtarrilean Tarragonan jokatu den bigarren jardunaldian helduko da euren txanda. “Egutegian markatuta dut eta, gaurtik hasita, egunero atzerako kontaketa egiteko asmoa dut”, dio Nuñezek.

Asteburuan hiru partidu jokatu zituzten. Coruñaiko Depor-

tivoren kontra irabazi, eta Valentziaren eta Espanyolaren kontra galdu egin zuten. Porrotek ez dute aitzakiarik, “joko aldetik gehiago izan ziren”.

Futbol Profesionaleko Ligak antolatzen du Genuine Liga. Hamazazpi taldetik Athletic hamakagarren tokian dago lehenengo jardunaldiaren ostean. “Gorantz egin behar dugu”, animatu ditu Nuñezek taldekideak, sailkapenaren berri jaso duenean. Badago beste sailkapen bat, irizpide moduan kiroltasuna darabilena. Talde bakoitzeko entrenatzaileek emandako puntuekin osatzen da. Sailkapen horretan hirugarren daude. Lehia eta kiroltasuna bateragarriak direlako. “Oso giro ona sortu zen denon artean. Beste taldeetako jokala-

riekin zein zaleekin ederto konpondu ginen”, Ortizen arabera.

Errepikatzen desiatzen

Jose Alvaro Geu Be elkarteko kidea Athletic zaleen konboiko partaide izan zen. Sentimenduei dagokienez, hauentzat ere errusiar mendia lakoa izan zen asteburua. Valentziarako bidean, Loiuko aireportuan, ‘Athleeeeeetic, ieup’ animo oihua ezin izan zuten bukatu. “Hirugarrena abestu orduko lar emozioz natuta geunden”, gogoratu du.

Asteburu gogoangarria izan da, alde guztietatik. “Egitasmoak integrazioaren alde urratsak ematea du helburu eta alde horretatik oso aberasgarria izan dela uste dut. Giro ederra eta ilusio ikaragarria bizi izan genituen”.



Aitor Alberdi zaldibartarra, Deportivoren kontra sartutako gola ospatzen. La Liga



Athletic taldearen eta bertaratutako zaleen familia argazkia. La Liga

Silvia Triguerosen irabazi du lehen Basque Ultra Trail zirkuitua

Lau probatik hirutan irabaztea lortu du korrikalari abadiñarrak



Silvia Trigueros Bilboko helmugara heltzen bere loba Olatzekin.

> KORRIKA Joseba Derteano Silvia Trigueros abadiñarrak merezimendu osoz jaso du Basque Ultra Trail (BUTS) zirkuituko irabazlearen garaikurra. Zirkuitua osatu duten lau probetatik hiru irabazita goitik behera agindu du. Irabazi ez duen bakarrean podiumera igo da. Hain zuzen, joan zen asteburuan Donostiako eta Bilboko hiruburuak lotu zituen lasterketan hirugarren amaitu zuen. Edozelan ere, batutako puntuak nahikoa izan dira sailkapen orokorrean nagusi izateko.



Arkaitz Iturriagaetxebarria eta Erlantz Zaldunbide elkarregaz helmugaratzen.

“Amaitu dut denboraldia. Tor des Geants-en bigarren amaituta eta BUTS irabazita oso pozik nago”, adierazi du.

Hainbat protagonista

Donostia-Bilbo proba berezia izan zen Durangaldeko beste korrikalari batzuentzat ere. Gizonetan emaitza ikaragarria lortu zuten Arkaitz Iturriagaetxebarria abadiñarrak eta Erlantz Zaldunbide iurretarrak. Bigarren eta hirugarren sailkatu ziren eta elkarregaz helmugaratu ziren, estelada bati eusten.

Jose Mari Lizarralde ‘Txan-txa’ iurretarrak egindako lana ere azpimarragarria da. 71 urte-gaz 36.51.47-ko denboran egin zuten 140 kilometroak. Antzerako probak egin zalea da Lizarralde. Hiru Handiak hainbat bider amaitu du.

ADITUAREN TXOKOA

ENERITZ ITURRIAGA MAZAGA

Txirrindularitza



Amatasuna

Urtebete joan da azken iritzi zutabea idatzi nuenetik. Baina berriz ere hemen nago, gogotsu. Batzuetan buruak ere atsedena behar izaten du, ideia berriz hornitzeko eta energiak kargatzeko. Nire kasua horixe izan da, baina beste arrazoi bat ere baneukan. Arrazoi handi bat neukan... neure barruan.

Carlotta etorri zaigu mundura, eta horrekin bizimodu berri bat jaio da. Beti esaten da ama edo aita izan aurretik eta ostean sentipen oso desberdinak izaten direla, eta horrela da. Betirako eta baldintzarik gabe maitatuko duzun norbait jaiotzen denean ez dagoen tokitik indarra ateratzeko ahalmena sortzen da. Hori sentitu dut Carlottaren jaiotzagaz.

Hausnarketa honekin gelditzen naiz: beti esan izan dut gurasoengandik datorrela gure seme-alaben heziketa eta ohitura multzoa, guk eragina dugula horretan, eta orain, ama izan naizenetik, egunetik egunera pentsamendu hori gero eta barneratuago dudala onartzen dut.

